



Nolako egitura politikoa?

ipar Euskal Herriaren garapenerako eta antolakuntzarako eskema onartu zuen joan zen urteko martxoan Garapen Kontseiluak. Ondorengo hilabeteetan oniritzia eman zioten eskemari Hautetsien Kontseiluak, Pirinio Atlantiarretako Departamentuak eta, joan den abenduan, Lionel Jospin buru duen CIATek (Lurralde Antolakuntzarako Ministerioarteko Kontseilua).

Ipar Euskal Herriaren garapena helburu duen plangintza estrategiko hau nork eta nola bideratu da orain arazoa, egitura politiko-administratiborik ez baitu Euskal Herriak Frantziako Estatuan. Ipar Euskal Herriari egitura berria ematea baitezpadakoa dela irizten diote batzuek —eta ez abertzaleek bakarrik—, baina orainarte bezala Biarnoari lotutako departamentuan segitzea defendatzen dute beste batzuek.

Batzuren eta besteren iritzien bila jo du *Jakin*-ek. Hiruna galdera egin diegu zortzi laguni. Lauk erantzuna igorri digute, baina beste lauren arraposturik ez zaigu heldu. Honako lau hauek erantzun digute: Jakes Abeberri, Euskal Batasuneko kidea eta datorren martxoko hauteskundeetan Abertzaleen Batasuneko zerrendaburua; Patxi Noblia, Garapen Kontseiluko zuzendaritzako kide izana eta Soko kooperatibako arduraduna; Txomin Peillen, euskaltzaina eta Eusko Alkartasunako kidea; eta Jakes Sarraillet, EMA alderdiko zuzendaritzako kidea.

Beste lau hauek huts egin digute: Max Brisson, RPRko kidea eta Akitaniako kontseilaria; Mixel Intxauspe, RPRko kidea, Frantziako Asanblea Nazionaleko diputatua eta Depar-

tamentuko kontseilaria; Jean-Jacques Lasserre, Force Democrate-eko kidea, Akitaniako Erregio Kontseiluko lehendakariordea, Departamentuko Kontseilu Nagusiko lehendakaria-ordea eta Bidaxuneko auzapeza; eta Frantxoa Maitia, Alderdi Sozialistaren Ipar Euskal Herriko idazkari nagusia eta Izpurako alkatea.

Egin dizkiegun hiru galderak datoz ondoren:

- 1.- Garapen Kontseiluak eta Hautetsien Kontseiluak Lur Antolakuntzaren alorrean proposamenak egin eta hainbat erabaki hartu dituzte. Baina nola gauzatuko dira erabaki hauek? Nork zer bideratu behar du?
- 2.- Zein litzateke zure iritziz Ipar Euskal Herriaren egitura politiko-administratibo egokiena? Euskal departamentua? Beste era bateko instituzioa?
- 3.- Zein eratako harremanak izan beharko lituzte Ipar Euskal Herriak inguruko lurraldeekin: Euskal Autonomi Elkartea, Nafarroa eta Akitaniarekin?